



BIHARAMUNEKO PILULAREN AJEA

Errezetarik gabe saltzen dute farmazietan pilula pasa den irailaren 28tik; eztabaida ugari piztu du erabakiak »6

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2009-10-11

VIIURTEA 1.798.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ehunka lagun bildu ziren Errebote plazan; taulatik «Remi gure bihotzean geratuko dela» gogoratu zuten. ESTI EZEIZA

«Hunkiturik eta saminez» omendu dute Remi Ayestaran

VILLABONA «Merezi zuen omenaldi hunkigarria» egin zioten atzo zinegotzi ohiari bere lagunek, herrikideek, familiartekoez, ... 5

«Euskal Herritarrak gara», aldarrikatu dute

IBARRA Euskal Herria Eguna ospatu zuten atzo Ibarrek eta Lizarrak; bi herriak senidetu ziren 4



Senidetze ekitaldian dantzarien emanaldia izan zen. R. CALVO

Berazubin bi egun dituzte oraindik aurretik auzotarrek euren jaiez gozatzeko

TOLOSA Atzo ere izan zuten zer gozatua; gaur, besteak beste, Manenten kontzertua 7



Haurrak puzgarriekin jolasean. NL

Gure baserritik, haragia zuzenean etxera



5 Kg-ko sorta 58€tan (banaketa DOAN)
Xerrak (hiru mota), haragi xehea, saiheskia, zankarra, gisatua, txuleta.

Proba ezazu, egin eskaria:

943-30 43 32 (ordutegia: 9:00-17:00) edo saski@lurlan.org
Dendak: Bulevard 7 eta San Martin merkatuko C4 postuan (Donostia)



ORiA S.L. 

zeramika- bainua

BEROGAILU, GAS ETA ITURGINTZA INSTALAZIOA

Tel.: 943 67 32 89 • Fax: 943 69 71 20
Euskal - Herria, 4 Behea 20400 IBARRA

Laburrak

Zine eskaintza zabala Leidorren eta Gurean

ZINEMA Ohi bezala, eta prezio merkean gainera, Leidorren zinemazaleentzat aukera zabala eskaintzen du. Gaur, esaterako haur eta gazteentzat izango da aukera. *Shorts* haurrentzako filma emango dute 17:00etan. Eta 19:30ean eta 22:30ean Quentin Tarantinoren, *Malditos bastardos* filma emango dute. Biharko ere *Shorts* emango dute 17:00etan. Eta *Malditos bastardos* filma 19:30ean. Asteartean, berriz, ikuslearen egunean, 20:30ean. Gurea aretoan ere film *Malditos bastardos* filma emango dute gaur 19:30ean eta 22:30ean eta bihar (Ikuslearen eguna) 21:30ean. Eta *Pequeños invasores* haurrentzako filma gaur eta bihar 17:00etan.

Irurako Jubilatuen Eguna ospatuko dute gaur

IRURA San Migel jaien ondorengo asteburuan ohitura den bezala gaur jubilatuen eguna izango da. Egitarau xumea antolatuta dute hauentzat: 12:00etan meza nagusia izango dute eta 14:00etan jubilatuen bazkaria; ondoren, sariak banatuko dituzte eta dantzaldia.

Autoritateaz



» Uzturretik

Jokin Barriola

Ez da txikia azkenaldian irakasle on autoritatea handitu beharra dagoenaren ideia plazaratzen dutenen zerrenda. Irakasle arteko diferentziak murrizteko uniformeak behar dira. Irakasleak bere mezua zabaltzeko, San Pedro bailitzan, talaia egokia behar du, alegia, oholta. Bihurrikeriek sortzen dituzten korapiloak askatzeko irakasleak sheriff-arena egin behar du eta ikastetxeak epaitegiarena. Orduak ta orduak pasa genitzake entzuten argiaren argudioei errebasoa egiten.

Azken urteetan hezkuntzaren inguruan ematen ari den eztabaida ez da inondik-inora txikia edo funtsik gabekoa. Azken batean gutxienez bi gizarte eredu kontrajarriri ari dira elkarren artean borro-

kan. Badira hezkuntza sistemaren oinarrietara bideratzen diren argudioak eta, beste batzuk, aldiz, azakeria hutsean gelditzen dira. Ez naiz saiatuko «zertan egiten duzu lan?» galderaren erantzunaren giltza ematen, «hezkuntzan egiten dut lan» ala «irakaskuntzarako ikastetza prozesuetan egiten dut lan» erantzunen azalpenarekin saiatze hutsak Testamentu Berriaren edukin mardultasuna izanen bait luke. Baina, esturturetan pixka bat gorago, badira komentatzea interesgarria iruditzen zaidan gauzik.

Argi dago hezkuntza ez dela ikastetxeen eta irakasle on lana izanen nahikoa zabaldua egon ideia hori. «Jo! Dauzkaten oporrek eta beti deprimituta! Haurrak kontrolpean izaten ez baldin badakite, aze irakasleak!». Gizarteak sekulako jauzia egin du azken urteetan. Ez naiz aurrerako ala atzerako jauzia izan den esaten saiatzen. Printzipioz, aurrera egin dugula esanen nuke, astiro pentsatuz gero sekulako atzerako jauzia egin dugunaz konturatzen naiz.

XXI. mendean bizi garen honetan irakasle izpiritu kritiko eta in-

depentea bultzatu behar dela diote paperek eta hezkuntzan adituak, baina aldi berean gero eta gehiago dira, Foucault-ek *Vigilar y castigar* liburuko gartzela modernoaren sorreraren analisisan erakusten duen modura, eskolak (neurri batean) erakunde errepresiboak izan behar dutenaren beharra ikusten dutenak, eta ez dute inongo konplexurik hori argi eta garbi plazaratzeko. Oso gogoan dut txikitan (eta ez hain txikitan) nere irakasle maiteekin izaten nituen eztabaida biziak, sarritan arrazoirik ez zutela pentsatzen nuelako. Aurreko ideia atzerakoi-dun horien ustez hori desakatu litzateke. Irakasleak eta ikastetxeak autoritatea behar dute hori egokiro «zuzentzeko».

Gehiegi luzatzen ari naiz eta bukatu beharko dut hau behingoz. Chomsky-ren *La des-educacion* liburuari aipua egin nahi diot. Bakoitzak bere pertsona miretsiak miresteke momentuz ez dugu eragozpenik. Momentuz. Liburu horrek honakoa jasotzen du: «...Irakasleek bere egin behar dute hipokrisia, gizarte injustizia eta miseria egoerak salatuko dituen hizkuntza kritikoa...».

Perretxiko eta onddo eskaintza zabala azken egunetako eguraldia lagun

Azoka Era guztietakoak eta prezio guztietakoak izan ziren salgai: 10 eurotan zein 30 eurotan kilo.

PABLO ALBERDI

Egun hauetako eguraldiak eta ilargiaren egoera oso aproposak suertatu direla esan dezakegu, atzoko onddo eta perretxiko eskaintza ikusi eta gero. Izugarriko kilo kopurua ikusi genuen, bai onddona, baita nikalo, ziza hori edo eta kuletrona ere. Aukera oso zabala zen, eta prezioak ere oso zabalak. Onddo merkeak 10 eurotan saltzen ziren, eta hauekin, ziza horiak 15 eurotan, mendiko angulak 20 eurotan eta kuletroak 30 eurotan.

Barazki zerrenda ere oso zabala. Udazkeneko gehienak aurkeztu dira, eta batzuk ere oso tamaina handia heltzen ari dira. Porruak eta azenarioak lehiaketa baterako aproposak, babarruna asko, espinaka, txikoria edo eta essarola asko ere bai.

Fruita postuetan errezil sagarra eta gaztaina izan ziren nagusi. Hauekin pikua, urrak, intxaurrak, matxakanak eta mizpiradiak izan ziren nagusi.

» ATZOKO AZOKA

GAIA	Merk.	Gares.
Bertako produktuak		
Onddoak	10,00	30,00
Ziza horia	20,00	-
Onddoak poteta	9,00	-
Mendiko angula	20,00	-
Gaztaina	3,00	-
Udarea	1,00	-
Pikua	3,00	-
Errezil sagarra	2,00	4,00
Urra	2,00	3,00
Tomatea	2,50	3,00
Porruak	1,00	4,00
Babarrun berria	12,00	13,00
Ibarrako piparra	4,00	6,00
Patata	1,00	1,50
Letxuak	0,50	0,60
Azenarioa	1,20	5,00
Gazta berria	17,00	-

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Baratxuria	1,60	6,00
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Dilistak	2,40	-
Arroza	1,90	2,00

Berdura plaza

Azalea	7,00	10,00
Ziklamena	5,50	-
Erromeroa	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20
Dipladenia	10,50	-
Xarbota	4,00	6,00

Z Zurea de hitza info



Guadalupe inguruan txikizioak

TOLOSA Tolosako Guadalupe-Catosa zubiaren ondoan edukinontzi batzuk Oriia ibaian botata daudela salatzen idazten dute. Argazkiak ere biltzen dizkizuet. Joan zen igande goizean agertu ziren ibaian eta, jakin dudanez, gau horretan Guadalupe industrialdean aparkatuta zeuden kote batzuri kristalak eta erretrobisoreak puskatu zizkieten. Dirudienez

horrelako gauzak gehiagotan gertatu izan dira inguruan jaiak izan direnean eta kontuan izan behar da Iruran jaiak izan direla asteburu honetan. Noiz arte? Nahikoa da! Eta mesedez, ez dakit nori dagokion, baina edukinontziak lehenbaitlehen ibaitik atera, inguruko enpresek behar izateaz gainera, bestela ez dakit non bukatuko duten eta. TOLOSARBAT

G Gutunak

Burgesia, faxismoa, errepresioa eta «gerra zikina»

Pasa den mendeko 30. hamarkadako krisi ekonomikoan, 1929ko crackaren ondoren, hainbat lekutan burgesiak faxismoa erabili zuen krisiaren ondorioz altxatutako langile mugimendua suntsitzeko. Langile erakundeak ilegalizatu eta milaka langile erailtzeari gain, herri zapalduen eskubideak ere gehiago erreprimitu zituzten. 1936ko Frankoren altxamendu faxista ere kapitalistek eta lur jabe handiek antolatua izan zen. Altxamendu hura antolatu eta frankismoaren urte luzeetan diktadura babestu zuen burgesia espainiarak jarraitzen du gaur egun ere botere ekonomikoa eta politikoa izaten, estatu aparatua kontrolatzen eta legegintzaldi bakoitzeko gobernuak maneiatzen.

Baina guzti honetan zein leku du euskal burgesiak? Altxamendu faxista hasi zenean euskal kapitalisten alderdia den PNVk zein

adierazpen egin zituen jakiteak asko esaten digu. Nafar Buru Batzarrak, Nafarroako PNVren lehendakariak, hauxe esan zuen: «PNVk, bere ideologia katolikoa eta foruzale sutsua dela eta, ez da elkartu eta ez da elkartuko Gobernuarekin (Errepublikarra) borroka honetan». Araba Buru Batzarrak berriz: «PNVren Arabako eskualdeko kontseiluak, anai arbarren arteko borroka fratrizidak eta odol isurketak saihesteko interesarekin (...) bere afiliatu guztiei (...) eratu berri diren autoritate militarren eta ordezkarien eskura jar daitezela eskatzen die».

Gorteetan ziren PNVko Javier Landaburuk eta Manuel Ibarrodok honako manifestu hau bultzatu zuten: «Espainiako gobernazioa igarotzen ari zen baldintzak, hiritarren hondamendi moralera eta materialera zeramalarik, borondate oneko gizon batzuk, euren praitotismo sanoak bultzatuta, erregenerazio espiritual eta materialerako Gurutzada bat egitera bultzatu ditu (...) ez dago dudarik,

eta are gutxiago euskal nazionalista batentzat, komunismoak emango ez liokeen eta herri honek lortu nahi duen askatasun minimoa nahi duenarentzat ... gure lagun nazionalistak bultzatzen ditugu halako altxor preziatua defendatuko duten horiei oztoporik ez jartzera (...) eta elkarrekin gora Espainia oihukatuzera...».

Bizkaiko eta Gipuzkoako egoera berriz Bizkai Buru Batzarrak azaldu zuen: «Erabaki bat hartzea aurreztuko zigun berri bat entzuteko itxaropena nuen, bando batek edo besteak eribabazi izanarena... Gobernu errepublikarrari babesa ematea erabaki genuen (...) gogo handiegirik gabe (...) jakinda, beste bandoaren alde irtetzen baginen, gure militantzia aurka jarriko zitzagula...». PNV hasieratik jarri zen faxisten alde Araban eta Nafarroan, eta Bizkaian eta Gipuzkoan berriz militantziarengana beldurrak eta altxamenduraren aurka langile klaseak erakutsitako indarlerako Gurutzada bat egitera baxkia hartzea. Azken batean, zein

bandok defendatzen zituen PNVren eta euskal burgesiaren interesak? Eskubide demokratikoen eta langile mugimenduen alde egiten zuenak edo kapitalisten interesak defendatzen zituenak? Bigarrenak, noski.

Gaur, kapitalisten bandoan egon ziren talde faxistek, tartean Falangea, Herriko tabernak, hildako errepublikarren oroimenak, Guardia Zibilak torturatu eta eraildako Joxi eta Joxeanen oroitarriak, ezkerreko militanteak eta etorkinak ari dira erasotzen eta mehatxatzen. Euskal preso politikoaren eskubideen aldeko mobilizazioen aurkako errepresio ankerra, Remi Ayestaranen heriotza eragin zuen Ertzaintzaren jazarpen basatia, Alain Berasteginen bahiketa eta tortura, Jon Anzaren desagertzea eta, bitartean, talde faxistek inpunitate osoz jokatzeko jarraitzen dute. Hau ez da kasualitatea. Erakunde faxistak ez dira lau erasotutako taldeak, burgesiak diruz lagundu eta euren interesak arriskuan jartzen dituztenen aurka

erasotzera animatzen ditu. Burgesiak kontrolatzen duen estatu aparatuan ere jakina da afiliazio faxista duten pertsonak daudela, batez ere ejertzito espainiarrean eta kolore ezberdinetako indar polizialetan.

Poliziaren errepresioa eta talde faxisten erasoak bultzatuko ditu euskal burgesiak langileen aurka ere hauen borroka handitzen doazen heinean. Horregatik, hilabeteak desagertuta daramatzen Jon Anza non dagoen galdetzea langile klasearen erakunde eta sindikatuen lana ere bada. Kasu honek Joxi eta Joxeani gertatutakoa gogorazten du, «gerra zikinaren» garaiki hain zuzen. Beharrezkoa da beraz langileen erakundeek ere talde faxisten inpunitatearen, Ertzaintzaren errepresio basatiaren eta euskal herritarren bahiketen aurka borroka egitea eta antolatzen diren ekintza eta mobilizazioei babesa ematea.

Ibon Artola. 'Euskal Herria sozialista' aldizkariko kidea.

Enpresetan euskara sustatzeko plana martxan

Aduna» Galtzaundi Euskara Taldearekin sinatu du akordioa Udalak; 90 enpresa sartuko dira egitasmoan.

ERREDAKZIOA

Adunako Udalak herriko enpresetan euskararen erabilera sustatzeko plana jarri du abian, Galtzaundi Euskara Elkartearekin sinatutako hitzarmen baten bidez. Plana asmo handikoa da, herriko 90 enpresa sartuko baitira egitasmoan: lehenengo, Udalak gutun bat bidaliko die enpresei, udalerrri euskaldunetan lan munduak ere euskararen aldeko neurriak hartzeak duen garrantziaz sentsibilizatzeke, eta, gutunak bidali ondoren, Galtzaundiko teknikari bat harremanetan jarriko da enpresetako arduradunekin, bisita bat egin eta enpresan euskararekin zer-nola jokatzeko duten neurtzeko. Prozesu horretan Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) hizkuntza normalizatzaile batek erelaguntza emango du.

Helburu nagusia 2009. urtean amaitu aurretik enprekin hartuemanetan jartzea eta euskararen

erabilera neurtzea da, aurrerantzean udalak eskaini ditzakeen laguntza enpresen egoeretan ahalik eta egokituena izateko. Printzipioz, gutunak bidaltzea eta enpresaz enpresa bisitak egitea egitasmo luzeago baten aurreneko urratsa izango da, baina urte bukera aldera egitasmoaren bultzatzailek emaitzak baloratuko dituzte; tartean, bestelako faktore batzuek duten eragina (krisialdiak, adibidez).

Enpresekin ez du inoiz horrelako lanketarik egin Adunako Udalak, baina Galtzaundirekiko hitzarmena ez da zerotik abiatuko, izan ere, Adunan badira dagoeneko euskararen aldeko neurriak hartzen hasita dauden hainbat enpresa. Esate baterako, sei enpresak Bai Euskarari Zirutagiria dute, eta beste batzuek, ziurtagiririk ez duten arren, euskararen aldeko apustua egin dute hainbat zereginetan. Gainera, etorkizunera begira, Udalak erabaki garrantzitsuak hartu ditu, oraindik eraiki gabeko industriaguneetan errotilazioa euskaraz edo ele biz jartzea erabaki baitu, plan partzialen bidez.

Adunako Udalak konpromiso ugari hartu ditu euskararekin: UEMAn sartzeaz gain, barne erabile-

ra planak onartu eta abian jarri ditu, merkatarien artean euskarazko materiala banatu du, bestelako kanpainak ere bultzatu ditu... Nolanahi ere, orain arte hankamotz geratu da enpresekiko lanketetan, baldintza hurreratu behar da. Hartara, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren baitan, lan munduan eragiteko plana onartu du.

Horrenbestez, Udalak eta Galtzaundik dei egin diete herriko enpresei Galtzaundiko teknikariari erraztasunak emateko eta euskararen aldeko neurriak hartzeko, Adunako euskararen normalizazioan urrats garrantzitsuak delako.



Arantxa Aburuza Adunako Udaleko alkatea eta Nora Olano Galtzaundi Euskara Elkarteko ordezkaria, hitzarmena sinatzen. HITZA

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 • 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIASVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Euskal Herria Egunean, Ibarra eta Lizarra senidetu dira

Ibarra » Goizetik, goizaldera arteko jai izan zen Euskal Herria Egunean. Ongietorria, kalejira, senidetzea, kantu bazkaria, herri kirolak, musa...

ENERITZ MAIZ

Atzo «Euskal Herritarrak gara» aldarrikatuta zuten Ibarra. Euskal Herria Eguna deitu zioten eta bertan, Ibarra eta Lizarraren arteko senidetzea gauzatu zuten. Bai Euskal Herriari herri ekimenak antolatua izan da, herriko eragile ezberdinen laguntzarekin.

Senidetzearen hasiera atzo

10:00etan jada herritarrak plazara inguratuta zeuden Lizarratik etorriko ziren 75 lagunei ongi etorri beroa egiteko prest. Plazara ingurartean, Alurr dantza taldeak dantzatu zieten eta mondeju, txorizo eta pipar janarekin hasi zuten eguna. Jarraian, trikiti doinuak, bertsoak eta dultzaineroak aritu ziren giro alaizten, herrian zehar kalejira, hauek lagundurik egin zuten bertaratutako guztiak.

Umeez ere, goiz partean, beraien jolasak izan zituzten. Kalean gora eta behera, kalejiran ibili ostean, berriro herriko plazara inguratu ziren guztiak Ibarra eta Lizarraren arteko senidetze ekitaldia egitera.

Senidetze ekitaldian, Ibarrako kide batek eta Lizarrako beste batek zabaldu beharreko mezua irakurri zuten. Mezu horretan, bi helburu nagusi helarazi zituzten. Alde batetik, «Euskal Herritarrak gara» aldarrikatzea eta bestetik,

bi probintzietako herrien senidetzea burutzea, erlazio aberasgarri bezala adieraztea izan zen. «Hizkuntza bera dugu, euskara, kultura eta sentimendu berdinak, Euskal Herria maite dugu, nahiz eta zati-keta administratiboaren bidez, errealitate ezberdinak gara txertatu nahi izan diguten», adierazi zuten. Era berean, «Lizarrakoak, Ibarrakoak, nafarrak eta gipuzkoarrak baina batez ere, Euskal Herritarrak gara eta gure etorkizuna erabaki nahi dugu».

Aurten, Euskal Herria Eguna Ibarra egin badute ere, datorren urtean Lizarran egingo dutela jakinarazi zuten. Atzo eman zioten senidetze honi hasiera baina harreman sendo bat sortzeko asmoa dute bi herrietako kideek. Bestalde «ez dugu egun simboliko batean geratzea nahi. Senidetze erreal eta praktikoa bilatzen dugu», gaineratu zuten. «Gora Lizarra, Gora Ibarra eta Gora Euskal Herria» esanez eman zioten bukaera ekitaldi nagusiari.

250 lagun bazkaltzen

Bazkal ordurako, 250 lagun elkartu ziren eta lepo bete zuten herriko frontoia. Bi herrietako kideak nahasita eseri ziren harremanak egiten hasteko, giro alai eta atseginean, guztiak. Helduek, entsalada, porru eta ganba pastela eta masai-




Senidetzearen unean, lizarratarra eta ibartarra mezua irakurtzen. REBEKA CALVO

lak jan zituzten eta haurrek aldiz, makarroak izan zituzten.

Bazkalostean, haurrek puzgarrietan jolasteko aukera izan zuten. Kafearen ostean, Mus txapelketa egin zuten. Ordutegiaren aldetik atzerapenak izan arren, herri jokoak egin zituzten bi herrietako kideek osatutako taldeak eginez. Bestetik, senidetze honek, bere murala izango du egun hau, gogoa izan dadin eta muralaren aurkezpena egin zuten. Sendi Ekin-tzaren eskutik, Txotx egiteko aukera eta ogitarteak jateko aukera izan zuten. Eta jaiak aurrera Gaztetxean jarraitu zuen, Zoplasteko taldea, erromeria Unsainekin eta Lizarrako eta Ibarrako Djak egunari bukaera emateko.

Orain, senidetzearen ostean, harremanak estutzen joan daitezten, lanean jarraitzea baino ez zaie geratzen bi herrietako kideei.



250 bat lagun elkartu ziren bazkaltzeko. REBEKA CALVO

Zure negozioa ulertzen dugu



Ibilgailu Komertzialen
Gama



TOLOSA MOTOR, S.A.

San Esteban auzoa, 14 - A • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38 • e-mail: tolosa.tolosa.redpeugeot.com



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Villabona » Errebote plaza jendez lepo bete zen atzo alkateorde, herritar eta lagunari «beraien maitasuna eta betirako bihotzean eramango dutela adierazteko».

ESTI EZEIZA

«Remi Ayestarane herriarengatik egindako lanak atzo jaso zuen erantzuna». Ehunka lagun bildu ziren Villabonan zinegotzi ohiari omenaldia egiteko. Ayestarani, egindako lana, eta aldi berean, zen bezalakoa izatea eskertu nahi izan zioten. Atzokoa ez zen omenaldi soil bat izan, sentimentuz, maitasunez eta esker onez betetako ekitaldi bat baizik. Zinegotzi, herritar, lagun, seme, anai, mutilagun, ikaskide, lankide eta oro har, pertsona bezala eman zuen guztiak, erantzun bat duela, eta bera ez egon arren, denen bihotzean geratuko dela adierazi nahi izan zioten bere jaioterrian.

Bi sentimentu nabaritu zitezkeen bertaratu zirenen artean. Alde batetik, harrotasuna, horrelako pertsona bat ezagutu eta maitatzeko aukera izateagatik, eta bestetik, samina, beraien albotik betirako joan delako.

Uztailaren 31n zauri handi bat ireki zen billabonatar askoren bihotzean, eta atzo ikusi zen, oraindik ere itxi gabe dagoela. Herriko festetako azken egunean Erztaintzarekin liskarra izan eta gero, bihotzekoak jota hil zen alkateordea. Honen ondotik, berak bete gabe utzitako lanei jarraipena emateko, Remi gogoan ekimena

Saminez eta hunkipenez betetako omenaldia egin diote Ayestarani



Donostiako Alde Zaharreko zarpantzarrek iragarri zuten omenaldi-ekitaldiaren hasiera; ordurako plaza jendez beteta zegoen. E. EZEIZA

sortu zuten bere inguruko lagunak. Hauek urtean zehar ekintza ezberdinak antolatzeko asmoa dute, eta atzokoa izan zen lehen-dabizkkoa.

Une hunkigarriez betetako ekitaldia

19:15 inguruan eman zitzaion hasiera ekitaldiari. Ordurako, jendez lepo zen Villabonako Errebote plaza. Donostiako Alde Zaharreko Zarpantzarrek eman zioten hasiera omenaldiari, hauek, herrian zehar ibili ostean, orduan gerturatu baitziren plazara. Jarraian elkarte, erakunde, eta koadrila ezberdinetako nikiak zintzilikatu zituzten

soka batean, eta plazatik zabaldu zituzten.

Eszenatoki gainetik hainbat eta hainbat lagun igaro ziren atzokoa, Amaia Agirre bertsolaria, bere Burgosko lagunak, Loatzo musika eskolakoak, Lain taldekoak... Familiakoak ere igo ziren taulara, eta hau izan zen ekitaldiko une hunkigarrietako bat, agurra dantzatu baitzuten zendutako senitartekolari eta bere argazkiaren ondoan, kandela bana jarri.

Gero Loatzo musika eskolakoak igo ziren, eta txalaparta doinuak entzutearekin batera, Remiren bizitzako hainbat irudi erakutsi zituzten.



Familiakoek agurra dantzatu zuten Remiren argazkiaren aurrean. E. EZEIZA



Hainbat koadrila eta elkarteren nikiak eskegi zituzten; Ayestarane Burgosko lagunak ere etorri ziren omenaldian parte hartzera. E. EZEIZA

30 min
te
+10 gla

Hizkuntza-Kudeaketa enpresan

Inskripzioa (beharrezkoa)
www.imh.es - imh@imh.es
Telefonoa 943 74 41 32

IMH, Azkue Auzoa 1 - Elgoibar

Zertan arituko dira txekiar 1, katalan 1 eta 100 euskaldun IMHn urriaren 22ko goizean?

Arrolatzailea	Kolaboratzaileak
MAKINA ERRENTAREN INSTITUTUA	HIZKUNTZA POLITIKA SAHARUJORDETZA GIPUZKOARDO FORU ALDUNDIA ELGOIBARKO USALA AHZE-AEK
15 hitzaldi + mahai ingurua: aukera itzazu zureak!	
ADMINISTRAZIOEN HUSPEGIA EUSKO JAURLARITZA, HPS - I. Calzada GIPUZKOARDO F. ALDUNDIA - E.Akarta ENPRESAKIDEN HUSPEGIA ADEGI - E.Zubiaurre EUROPAKO HUSPEGIA UOC ELAN, DAT - M.Srivelli LINEE proiektuak Txekia - J.Nekvapil MULTIAGAZIALAREN HUSPEGIA ITP - A.Cendoya / K.Izquierdo Enpresen nazioartekotasun - A.Hizar HIZKUNTZA INDUSTRIEN HUSPEGIA DUALIA - J.M. Perez	INGURUNE ERDIALDUNEAN KOKATUTAKO ENPRESEN HUSPEGIA DOBLE SENTIDO - I. Aranbari GARBALDI - I.Ziemsta (Artes) FINANTZA ETXEN HUSPEGIA NEURGAILUA-KUTXA, Itzazu HPS, Aizpuru NAFARROKO KUTXA - X.Erize BERRIKUNTZA ETA BERRIKETAREN HUSPEGIA EHU / IMH Mah. Enrem. Sektorean Bariketa DON BOSCOko praktikak euskaraz AHALMENTZIA - F.Marra (Elhuyar) FAGOR: 2 eta, 2 kanal - J.Polz (Enem)
Informazio gehiago: www.imh.es	

REBEKA CALVO

Frantziaren, Belgikaren, Erresuma Batuen edo Danimarkaren arrastoari jarraituta, Espainiako Gobernuak biharamuneko pilula bezala ezagutzen den hormonadun botika errezetarik gabe saltzeko erabakia hartu du. Irailaren 28tik eskuratu daiteke farmazietan 20 bat euroren truke, baina botikariek mesfidati samar hartu dute berria. Tolosa eta Ibarra hainbat farmaziatan esandakoari erreparatuta, behintzat, horixe ondorioztatu daiteke.

HITZA egon deneko botika guztietan neurria «presaka» hartu dutela diote eta beraz, oraindik ere ez dute informazio gehiegirik. Botikariek adinarekin dute arazo nagusia. Zer egin behar dute pilula bila joaten dena adingabea bada? «Hemen bi kontu desberdin du behar: genitala eta bide urdina. Abortu Legea dugu, zeinak 16 urteko geroakoei abortatu ahal dutela dioen, baina pilularen kasuan ez dute adina zehaztu, zer egin behar dut 12 urtetako ume bat etortzen bada? hutsune itzela dago, legearen arabera errezetarik gabe edonori saldu behar baitzaio», argitu du farmazialari tolosar batek. «Botikariek, kontzientzia-eragozpenak argudiatzen ez badituzte, pilula saldu behar dute, eta kito, horixe esan digute. Guk ez duguz zertan NANA eskatu behar, eta beraz, 16 urte baino gutxiago dituen gazte bat etortzen bada pilula errezetarik gabe eman egin behar diogu», gaineratu du beste batek. Botikari hauek lege orokorraz ari dira, zeinak esaten duen botikariek ezin dizkietela medikamentuak eman 16 urteko adingabeei.

Pilula beraren erabilera-orriak, ordea, ere ez du adina zehazten eta bitxikeriarik ere badago, izan ere, medikamentuaren kaxan *mediku-errezetarekin* bakarrik eskuratu daitekeela irakurri zitekeen orain egun gutxi arte, nahiz eta orain hori ezeztatzen duen «pegatina» bat jarri dioten gainean. Biltegiaren NorLevo pilularen *stocka* behera doaz nabarmen. Neurria «presaka» hartu izanaren eragina, botikarien hitzetan.

Antisorgailuak, errezetarekin

Orain arte, Eusko Jaurlaritzak osasuna kudeatzen duenez, antisorgailuak, antibiotikoak eta lasaigarriak errezetarekin bakarrik eskuratu ahal ziren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, baina orain, erabaki berri honen ondorioz, «egindako bidea desagiten» dela ere nabarmendu dute botikariek.

Honek guztiak, kontraesanak ere sortu dituela ere diote: «Antisorgailuak -baginako eraztunak, eguneroko pilulak edota partxeak- errezetarekin saldu behar ditugu eta biharamuneko pilula berriz ez. Nire ustez pilula hau ez da antisorgailu bat, zergatik liberalizatu dute salmenta?».

Bestelako kritikarik ere badute, izan ere Trinidad Jimenez Espainiako Osasun eta Gizarte Politika-

Pil-pilean dagoen gaia da, pasa den irailaren 28tik biharamuneko pilula errezetarik gabe saltzen dute eta farmazietan. Botikariek, hala ere, mesfidati hartu dute berria, presaka hartutako erabakia dela uste baitute.

Biharamuneko pilularen ajeak

ko ministroak esan zuenez, farmaziek pilulekin batera informazio liburuxkak banatu behar dituzte, baina farmaziek ez dituzte jaso oraindik. «Guk Osasun Ministe-

riko webgunetik ateratako informazioa hartu dugu», argitu du Olarreagako farmazialarietako batek. Orokorrean oso pilula gutxi saldu dituzte irailaren 28tik hona «gi-

zarte-segurantzandoan» eskuratu daitezkelako, batik bat. Maria Isabel Tolosa farmazian ere iritzi berekoak dira: «Nire ustez adingabeak kenduta gehienak gizarte-segu-

rantzara joango dira pilula bila, dondelako, baina hona etorri ez gero emango diet, noski». Bere ustez, dena den, neurri honekin arazoa farmazialarien esku utzi nahi izan dute. «Medikuen kontsultan sortu daitezkeen arazoak guri pasa dizkigute, informazioa emateko ardurara ere bai... arazoa guri pasa digute, baina ez digute ia informaziorik eskaini, salmenta liberalizatu dute eta listo».

Botikariek esandakoa entzunda, badirudi arazo gehienak adingaberen eskaerak sortuko duela, batetik, ez delako posible izango noiz, zenbatero eta zergatik hartu duten jakitea, gizarte-segurantzaren eskurata bakarrik hartzen baitute erabiltzaileen izen-abizenak, eta bestetik, antisorgailu bezala erabiltzen hasten badira sexu bidezko infekzioen transmisioak -sifilia, B hepatitis, gonokozia, IHESA...- ekididuzte ez dituztelako. «Gazteek ahaztu egin dute zer den IHESA, esate baterako. Azken urteetan kondoiaren salmenta asko jaitsi da, oso esanguratsua da».

Asteburuetan gehienbat

Biharamuneko pilula asteburuetan, jaiegun bezperetan eta horrelakoetan saltzen dagoen, Tolosaren kasuan Inauterietan ere asko ez gehiago saltzen omen dute, eta ez dira informazioa emateko unerik egokienak.

«Gauetan eta asteburuetan etortzen dira gehienbat eta guk ezin diegu orduerdi edo dena delakoa eskaini sexu-heziketa eskaintzeko. Hori ez da gure lana, egiten dugu, baina ez beti. Asko parrez etortzen dira eta antisorgailu bezala erabiltzen dute, aurretik inongo nerriarik hartu gabe».

Farmazialari gehienek nabarmendu dute gazteek antisorgailu bezala erabiltzen dutela eta farmazietan salduz gero joera hori harengotzeko arriskua badagoela: «Orain ez asko mediku batek asteburuerako, sei asteburusegidan, oker ez banago, bikote bera pilula hartzeko errezetaren bila joan zitzaiola esan zuten. Nazkatuta zegoen eta jada ez ziela errezeta berriz emango esan zuten. Neurri honekin nahi duten aldi guztietan hartzeko arriskua dago».

Bisitatu tuko Tolosako botika guztietan biharamuneko pilula saldu egingo dutela argitu dute, zailtasunak badituzte ere, baina bada saltzeko prest ez dagoenik ere, nahiz eta oraindik ez duen erabaki sendorik hartu. Ibarraoko Izaskun Iturriozek pilula errezetarik gabe saltzearen erabakia «lardaskeria hutsa» dela dio eta berak biharamuneko pilula abortu-pilula dela dio, beraz, «inrengatik balitz ez nuke salduko».

Osasun Ministeritzak biharamuneko pilula errezetarik gabe saltzearena adingaberen haurdunaldiak ekiditeko neurria dela dio, baina botikariek «dirua aurrezteko» dela uste dute, «15 urteko neska baten haurdunaldia ere ordaintzen du Estatuak, beraz, diru hori aurrezteko modua ere bada».

» HAINBAT GOMENDIO

■ Zer da biharamuneko pilula?

Larrialdietarako antisorgailua da, baina ez da ohiko antisorgailu metodo bezala erabili behar.

■ Noiz erabili behar da?

Nahi ez den haurdunaldia ekiditeko larrialdietan bakarrik erabili behar da, hau da, koitoxa izan deneko sexu-harremanak inongo babesik gabe izan denean.

■ Noiz erabili daiteke biharamuneko pilula antisorgailu bezala?

Larrialdietarako antisorgailua da, ahal den azkarren hartu behar da, izan ere pilularen eraginkortasuna gutxitu egiten da denborak aurrera

egin ahal. Sexu-harremana izan eta 72 orduetara hartu behar da pilula.

■ Zer da pilula hartu behar duen emakumeak jakin behar duena?

Lehenbailehen hartu behar duela pilularen eraginkortasuna ez gutxitzeko; pilula hartu eta hiru ordu baino lehen oka egiten badu berriz ere hartu behar duela; pilula hartu eta hilabete igarotzerakoan hilorik ez badu ginekoloarengana jo behar duela edota gutxienez haurdunaldi proba egin; ezin dela antisorgailu bezala erabili, izan ere beste metodo batzuk baino era-

ginkortasun gutxiago du; haurdunaldi ektopikoen arriskua biderkatzen duela; eta ez duela inolako babesik eskaintzen sexu bidez kutsatu daitezkeen gaisotasunei aurre egiteko.

■ Zeintzuk dira albo ondorioak?

Ez dira ohikoak, arinak dira. Hala ere, urdaihesteetako arazoak, batez ere goragalea, sortu ditzazke; pilula hartu eta hiru ordu baino lehen oka eginez gero berriz ere hartu behar da. Zefaleak, zorabioak eta hilekoaren zikloaren aldaketak ere sortu ditzazke, eta titi-sentsibiltatea ere hareagotu ahal du.



Botikariek biharamuneko pilula errezetarik gabe banatzearen erabakian kontraesanak nabarmendu dituzte, izan ere baginako eraztuna, adibidez, errezetarekin eskuratu behar da. R. CALVO

» INKESTA

1. Ba al dakizu zer den biharamuneko pilula? 2. Zein kasutan erabiliko zenuke? 3. Ezagutzen al duzu beste antisorgailurik? 4. Sexu bidezko gaixotasunak ekiditen al ditu?

«Ez dut hartu duen inor ezagutzen»

Amaia Ulacia

13 URTE

1. Bai, telebistaren bidez dakit zer den eta 20 euro balio duela ere telebistan entzun dut. Ez dut inoiz hartu eta ez dut hartu duen inor ezagutzen.

2. Sexu harremanak izan eta gero haurdun gelditzen bazara edo gelditu zarela uste baduzu. Baina nik ez nuke hartuko.

3. Bai, kondoiak eta beste pilula batzuk.

4. Uste dut ezetz.

«Eskolan pilulataz hitz egiten aritu gara»

Nahia Dominguez

12 URTE

1. Bai, hormonak dituen pilula bat da. Telebistan ikusi dut zer den eta eskolan ere pilulaz hitz egiten aritu gara. Ez dut inoiz hartu.

2. Sexu harremanak izan eta haurdun gelditzen bazara. 48 ordu baino lehenago hartu behar da. Nik ez nuke hartuko norbait hiltzea delako eta bitziteko eskubidea duela.

3. Bai, kondoiak.

4. Ez.

«Gurasoekin ez dut honetaz hitz egiten»

Ainhoa Oiarzabal

13 URTE

1. Bai, irratian eta telebistan entzun dut zer den. Gurasoekin ez dut honetaz hitz egiten, lotsa ematen dit. Ez dut inoiz erabili, baina bazpate erabiliko nuke.

2. Haurdun geratu eta umea izan nahiko ez banu. Baina ez dakit nola hartu behar den, farmazian galde-tuko nuke nola hartu. Badakit lehen errezeta behar zela eta orain ez.

3. Bai, kondoiak.

4. Ez dakit.

Berazubiko jaiak, asteburu luze honetarako aukera ezin hobea

Tolosa » Atzo ekitaldi ugari izan ziren adin guztientzat, baina gaur eta bihar ere izango dute zer gozatua auzokideek.

ERREDAKZIOA

Hainbat urte erdi itzalita egon ziren Berazubi auzoko jaiak, baina badirudi azken urteetan berriz ere garra piztu dietela. Egun hauetan bertatik igarotzea baino ez dago hori baieztatzeko. Herenegun ekin zieten jaiak eta jende ugari ibili da aurrera eta atzera. Auzoko lokalak letako gazteek hartu dute hauek antolatzeko ardura eta adin guztietarako gustagarriak diren ekitaldiak antolatzea lortu dute.

Asteburu luzeaz gozatzen ari dira zenbait auzokide nahiz bisitari eta horrek ere laguntzen du jai jendetsu eta arrakastatsuak lorzen. Atzo arratsaldean, esaterako, haur eta guraso ugari bildu ziren karparen inguruan, bertan antolatutako haur jolasetan parte hartzeko.

Puzgarriekin lehenik eta aulkiekin ondoren algarra eta jolasen artean aritu ziren txikiak. Erorketa batean ustoren bat edo beste ere

izan zen baina azkenean guztia ondo bukatu zen. Garrantzitsuenak, gainera, bete zen, guztiok arratsalde pasa ederra igarotzea, hain zuzen ere.

Txikiak plazan jolasten zuten bitartean helduagoak direnak mahaiaren bueltan musean aritu ziren. 66 eta Ordizia tabernetak baliatu zituzten horretarako.

Gaur eta bihar atsedenek gabe

Atarikoak pasata azken txanpan sartuko dira jaiak gaur. Goiz-gozetik era guztietariko ekitaldiak antolatu dituzte auzoan. Goiztiarrenek txistulariekin esnatzeko aukera izango dute, 08:00etan. Ondoren, meza ospatuko dute 09:00etan. 14:00etan paella txapelketa egingo dute. Arratsaldean ekingo diote berriro egitarauari, buruhandiek. Zezentxoak ere ekarriko dituzte zezen-plazara. Gauean, berriz, musikari egingo diote tartea, zahagi sagardoaren ondoren. Manent etxeko taldea ariko da oholatza gainean, 23:30etik aurrera. Krakenek lagunduko dio. Bi kontzertuen artean mozkor kirolak egingo dituzte.

Horrelako egitarauarekin ez da harritzeko urtetik urtera arrakasta irabazten joatea...



Mus txapelketa jokaatu zuten 66 eta Ordizia tabernetan. N. LATABURU



Umeek aulkirik gabe ez geratzeko ahalegina egin zuten. N. LATABURU

» EGITARAUA

Urriak 11, gaur

- 08:00. Txistulariak.
- 09:00. Meza.
- 14:00. Paella txapelketa.
- 17:00. Buruhandiak.
- 18:00. Zezentxoak zezen-plazan.
- 21:30. Zahagi sagardoa.
- 23:00. Kontzertuak: Manent eta Kraken.
- Tartean. Mozkor kirolak.
- 02:00. Dja.

Urriak 12, bihar

- 14:00. Babarrun jatea.
- Ondoren. Toka txapelketa jokatuko dute.
- 17:30. Zezentxoak zezen-plazan.

Etxahun Lekuek irabazi du bigarren kanporaketa



Leitzako Udal Kiroldagian jokatu zuten atzo Bertsolari Txapelketa Nagusiko bigarren kanporaketa. HITZA

Leitza » 780 lagun bildu ziren Udal Kiroldegian Bertsolari Txapelketa Nagusian; bigarren Agirreazaldegi izan zen.

ERREDAKZIOA

Txapelketa Nagusiko bigarren kanporaketa jokatu zuten atzo Leitzako Udal Kiroldegian Iñigo Olaetxea nafarrak, Ainhoa Agirreazaldegi, Iñigo Manzisidor Mantrik eta Xabier Sukia gipuzkoarrek, eta Ibon Ajuria eta Etxahun Lekue bizkaitarrek. Azken honek irabazi zuen. Bigarren Ainhoa Agirreazaldegi sailkatu zen eta hirugarren Iñigo Manzisidor izan zen. Guztira 780 ikus-entzule bildu ziren kiroldegian.

Bertsolari hauek 30 urte inguru dituzte eta txapelketetan zailduta-koak dira. Xabier Sukia eta Ibon Ajuria dira txapelketan lehenengoz parte hartu duen bakarrak, gainerakoek bigarren parte-hartzea baitzuten. Etxahun Lekue eta Iñigo Olaetxea beren herrialdeko finalista izan dira aurretik, gainera.

Bilboko saioa

Gaur, berriz, eskualdekoen txanda heldu da, final-laurdena jokatuko baitute, Bilboko Arriaga Antzokian, 17:30etik aurrera. Bertan ariko dira Jexux Mari Irazu larrauldarra eta Amaia Agirre billabonatarra. Haiekin batera ariko dira bertsotan Asier Otamendi, Julio Soto, Maddalen Arzallus eta Iñaki Zelaia. Saioa Maite Berriozabalek gidatuko du, lehen aldiz ariko dena Txapelketa Nagusian.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Bigi garbitasunak: alfonbrak, etxeak, bulegoak etabar garbitzeko prest. Deitu inongo kopromisorik gabe. Gurutze: 638 944604 edo Belen: 695 708271.

EROSTEKO

■ **Traspalet karretila.** Bigarren eskuko traspalet karretila bat erosiko nuke. Harremanetako: 648004798.



21°
16°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	19°
HOTZENA	10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Zinema

- **Tolosa.** Kultura Gorraen Astea: 17:30ean film laburren proiektzioa zeinuen hizkuntzan, Hirukide ikas-tetxean.
- **Tolosa.** Leidorren *Shorts* 17:00etan eta Quentin Tarantinoren *Malditos bastardos* 19:30ean eta 22:30ean.
- **Villabona.** Gurea aretoan *Pequeños invasores* 17:00etan eta Quentin Tarantinoren *Malditos bastardos* 19:30ean eta 22:30ean.

Jaiak

- **Tolosa.** Berazubiko jaiak: 08:00etan txistulariak, 09:00etan meza, 14:00etan paela txapelketa, 17:00etan buruhandiak, 18:00etan zezentxoak zezen-plazan, 21:30ean zahagi sargardoa, 23:00etan Manent eta Kraken taldeen kontzertua, tartean mozkor kirolak eta 02:00etan DJa.
- **Irura.** 12:00etan meza nagusia eta 14:00etan jubilatuen bazkaria, ondoren, sariak banatzea eta dantzaldia.

Deialdiak

- **Leaburu.** I. Artisau, barazki eta ganadu azoka. 17 postu goiz osoan zehar plazan. Trikitixa, paseok zalgurdiaren...

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Gaur**
- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
- **Lekunberri.** Mendi, M.I. Aralar kalea, 25.112.
- **Bihar**
- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Oroimena galtzen duenaren istorioa

TOLOSA «Oroimena galdu eta gero, hasieratik, berritik aurre egin behar bizitzari», hori gertatzen zaio *Pequeños crimenes conyugales* antzerkiko protagonistari. Gorren sensibilizazio astearren baitan, bi antzerki ikuste-ko aukera izan zen atzo arratsaldean Leidorren, eta lehendabizikoa hau

izan zen Madrilgo antzerki taldearen lan berria. Gaurkoan berriz, film laburren proiektzioa izango da Hirukideko Eskolapioen egoitzan. 17:30etik aurrera, hainbat film laburraz gozatzeko aukera izango da. Honekin gainera, emango diete sensibilizazio asteko ekitaldiei amaiera. **E ZEEZA**

A Agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

agurrak

denda



eskura ezazu...

HITZAren poltsa!

HITZAren produktuak salgai

Tolosako HITZAren egoitzan salgai

HITZAren produktuei buruzko informazioa nahi izanez gero deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira.